

Altzako futbolari gazteentzat



Azkeneko urte hauetan Altzako emakumezko futbol taldea Donostia Cup txapelketan irabazle izan dugu. Hauek bai neska trebeak! Beraien entrenatzaileak esan didanez, azken bi urte hauetan Espainiako Klub-en txapelketan txapeldunorde izan dira. "Baina aurten -kexu samar zen Gerardo Erbiti-, ez dugu joaterik izan gobernuaren diru laguntzarik izan ez dugulako". Donostia Cup honetan paper ona egiten badute, 8 partidu jokatu beharko dituzte finalera iristeko, bat eguneko.

Altzako talde honetan jokatzeko gogo asko dago, eta badute taldean 11 urteko neskatxo bat ere. Gazte jendeari aukera handia ematen ari zaio bertan. Hona hemen gure menua beraiantzat:

Hasteko, bero hauek jasateko, pepinoz eta yogurt-ez egindako entsalada

bat. Gure artean nahiko plater ezezaguna izan arren, oso freskagarria da.

Bigarrenez, abildadea eduki behar da jaurtiketa onak egiteko, eta baita, garai honetan, Kontxako bahiatik txipiroi txikiak ateratzeko ere.

Txipiroitxo hauek "pelaio" erara ipiniko ditugu. Hori bai, mordoska bat harripatu behar dugu futbol talde osoari jaten emateko.

Eta postrerako, txokolatez egindako edozer gauza, txokolateak indarra ematen baitu beti. Bi txokolatez egindako mousse "txuri beltza" jar dezakegu, adibidez.

Edateko, berriz, txakolina: noiz behin-ka tragoska bat edatea ez baita kaltegarria, eta are gutxiago txipiroitxo hauek aurrean edukita.



Tibur Eskisabel

Errezeta

Txipiroitxoak "pelaio" erara

• **Osagaiak 4 laguntzako:**

Baso erdi ardo txuri
Perrexila
24 txipiroi
2 tipula handi
bi baratzi ale
bi olio kikara

• **Prestaketa:**

Txipiroiak ondo garbitzen ari garen bitartean, tipula tiratxoetan moztu eta oiloan poliki egiten utzi. Tipula bigun bigun dagoenean, txipiroiak gatzatu eta bertara bota, eta gero ardo txuria gehitu. Minutu batzuek honela eduki eta gero, gainetik xehetutako perrexil pixka bat erantsi eta kitto.

24 ORDUKO ETENGABEKO ZERBITZUA
943 37 69 80 ☎ 943 37 68 80



TANATORIO DONOSTIALDEA
DONOSTIALDEKO BEILATOKIA

www.tanatoriodonostialdea.com

- HILETA ZERBITZU OROKORRAK
- Eskela zerbitzuak
- Aholkugintza juridikoa
- Lore apaingarriak, loredenda
- Punta-puntako beilatokia
- Beila aretoak
- Nazio mailako zein nazioarteko lekualdatzea
- Laguntza psikologikoa
- Hilarriak, panteoiak eta grabatuak
- Hillkutxen erakusketa eta salmenta
- Kafetegia-jatetxea
- Errausketak

Errekalde Etorbidea, 57 Tel: 943 37 69 80* Faxa: 943 37 68 79 20018 AÑORGA - DONOSTIA
Fuenterrabía kalea, 28 Tel: 943 42 17 86 Faxa: 943 42 59 64 20005 DONOSTIA



IÑAUSTI



TELEFONOA:
943 313 933

IÑAUSTI

JANGELA ZABALAK ETA ENPRESA BILERAK EGITEKO ARETOAK

GOIZEKO 7ETATIK IREKITA

GOSARIAK, PINTXOAK, OTARTEKOAK.

EGUNEROKO MENUA:
(10 plater aukeran) 1.200 PEZETA

MENU BEREZIAK: 3.000 PEZETA

APARKALEKU ZABALA. LARUNBATETAN EGUN ERDIZ IREKITA.

ZUATZU KALEA 4 (EASO ERAIKUNTZA 2 ETA 3 LOKALAK) 20018 DONOSTIA